

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LAN, OGASUN, INDUSTRIA ETA EKONOMIA BATZORDEKO SESIOA

ELAren izenean MITXEL LAKUNTZAK egindako interbentzioa.

Egun on.

Lehenik, eskertu nahi nieke Bildu eta Aralar talde parlamentarioei lan saio honetan parte hartzeko egin diguten gonbitea; helburua **“Elkarrizketa Sozialaren Mahaia eta eragile ekonomiko eta sindikalen arteko kontzertazioa” aztertzea.**

Dakizuenetz, sindikatu hau oso kritikoa izan da horrelako akordioekin, eta berari buruzko iritzi politikoa ematen hasi baino lehenago ezinbestekoa da akordioen datu sozioekonomikoak parametro neurgarrien arabera epaitzea; horixe da, hain zuzen, sinatzaileek baztertu duten azterketa.

Horretarako CENek, UGTk eta CCOOek sinatu zituzten akordioen fruitu nagusia aztertu behar da, Enplegu Planak direlakoak.

Elkarrizketa sozialaren azterketa objektiboa

Gauza jakina da plan hauetarako izugarritzko dirutzak bideratu izan direla: 1.600 milioitik gora azken 15 urteetan; haatik, gaur arte inor ez da izan gauza horiek arrazoitzeko, ezta bere egokitasuna edo efikazia demostratzeko.

Aski da erreparatzea langabeziarekin zer gertatu den (1998tik 2013ra %9,4tik %18,2ra igo egin da) edota soldaten gorabeherari (enpleguaren kalitatea neurtzeko datu jakingarria): Nafarroa izan da aurren soldadak gehien jaitsi diren hirugarren erkidegoa. BPGan soldaten parte hartzea hamar urteetan zazpi puntu jaitsi egin da.

SNE

Datu horiei gehitu behar zaie Kontu Ganberak hil honetan bertan Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz argitaratu duen txostena. Planaren eraginkortasuna eta efizientziari buruzko atalean, Comptosek nabarmentzen du ezinezkoa dela Planaren eragina egiaztatzea, ez baita ez helburu, ez adierazlerik aintzat hartzen, eta horrek eragotzi egiten du helbururen bat planak bultzatako neurriren baten ondorio denik.

Kargu hartzen dioten beste kontu bat UGTren, CCOOen eta CENen parte hartzea da, prestakuntzako ikastaroetarako diru-laguntzak ematen dituzten organo erabakitzaileetan. Txostenaren 38. orrialdean, Kontu Ganberak honakoa gomendatzen du, hitzez-hitz: *“Saihestu egin beharko litzateke erakunde batek NEZen gisako organismo baten zuzendaritza organoetan parte hartzea, zeinek lankidetza-hitzarmenak baimentzen dituzten, era berean hitzarmen horien onuradun izateko aukera badu, enplegurako lanbide-heziketako diru-laguntzen baitan”.*

Gogora ezazue txosten honi buruz, eta areago, Comptosen eta bere presidentearen eginkizunari buruz kritika latzak bota zituztela UGT eta CCOO sindikatuek, iritzi eta balorazio “politikoak” jaso omen zirelako. Gero akusazio horietan atzera egin zuten, baina harrigarria bada ere, Gobernuak gaurkoz ez ditu Kontu Ganberak txostenean eman zituen gomendioak bete.

Beraz, Nafarroan Elkarrizketa Sozial izen okerra daraman sistemaren ikurra benetako porrota izan da, eta hartara bideratu dira 1.600tik gora milioi, zehaztasunik ez duten hainbat atal lausoren aitzakiaz; hauek, Planaren auditoria bera egitea ere galarazten dute.

Honi gehitu behar zaio ez dela hau Comptosek kontu honekiko eman duen lehen txostena, eta “enplegua” edo langileen prestakuntza iraunkorraren partidak aztertzen diren bakoitzean eredu zailantzan jarri izan duela edota okerre bat aurkitu duela.

INAFRE

Horren adibide, Kontuen Ganberak 2007ko uztailean egin zuen txostena, Europar Batasunetik Nafarroari emandako funtsak aztertzen zituena, baita langileen prestakuntza iraunkorrera

bideratzekoak zirenak ere. Hauek UGTk, CCOOek eta patronalak kudeatzen dituzte. Txostenean egiaztatzen da ikastaroak justifikatzerakoan irregulartasun ekonomikoak izan direla (700.000 euroko zenbatekoa osatzeraino) edota beste kontu batzuk, esaterako ikastaroetan ustez eta benetan parte hartu duen jende kopuruaren inguruko zalantzak.

MODERNA PLANA

Bi txosten horiek irregulartasunak eta hutsegiteak islatzen dituzte; hirugarren batean, berriz, Comptosek **Moderna Plana** aipatzen du, eta ez dio ongi irizten fundazio pribatu gisa eratu izanari; ganberaren aburuz publikoa behar zuen, izan ere, erabiltzen dituen baliabide gehienak publikoak baitira.

Uler daiteke patronalak edota gobernuak berak interesa izatea kudeaketa eredu pribatuan, baina gaitzagoa da azaltzea UGTren eta CCOOen parte hartzea Moderna Planean. Planaren lehen bertsioan proposatzen zen enplegu publikoari behin betirako izaera kentzea, edota helburutzat administrazioa bera erakunde enpresarial moduan definitzea. Planak, beraz, enpresarioen interesa Nafarroaren interesarekin nahasten du.

Horregatik, Comptosen hiru txostenak aintzat hartuz gero, non elkarriketa sozialaren baitan hainbat planen funtsezko oinarriak zalantzan jartzen diren, eta lan merkatuaren egoera txarrari erreparatuta (langabezia maila historikoa, prestazioak murrizteko politika eta zerbitzu publikoen okertzea, pobrezia gehitzen ari delarik), galdetu beharrekoa da zer ote dagoen benetan elkarriketa sozialaren atzean.

Elkarriketa sozialaren ezaugarriak

a) Garrantzia duena, gobernuari eta patronalari komeni ez zaiena, ez da aintzat hartzen

ELAren ustez, hiru kontu dira aipatu beharrekoak.

Elkarriketa sozialaren lehen ezaugarria da ez direla funtsezko gaiak jorratzen. Patronalarentzat edo Gobenuarentzat eroso ez den deus ez da mahairatzen. Alabaina, zer geratzen da elkarriketa sozialetik funtsezko kontuak aldebakarreko erabakiz ezartzen badira? Aberastasunaren banaketa, zerga-politika erregresiboa aldatzea, (Europarekiko diferentziala 10 puntuko aldea da) edota aurrekontu sozialagoak egiteko aukera, eta are, Gobernuak bere enplegatuekiko, langile publikoekiko, duen jarrera... Hots, zer aukera dago Gobernuaren politika publiko, sozial edo laboralak aldatzeko? Argi dago inongo aukerarik ez dagoela.

Beraz, itun horien oinarria bada benetan funtsezko diren gaiak elkarriketatik kanpo uztea... Zer da elkarriketa soziala?

b) Funts publikoak banatzeko eredua

Agian argigarriak izango dira Nafarroako presidente andereak Elkarriketa Sozialeko Mahai iraunkorra sinatu zenean esan zituenak: Barcinaren esanetan "batzen gaituenaren alde lan egin behar dugu", eta sinatzaileen artean a priori dauden desberdintasun ideologikoak kontutan izanik, ondoriozta daiteke elkarriketa sozialaren muina bera diru publikoen banaketa dela.

Sinatzaileek kudeatzen dituzten funts publikoak zenbatekoak diren kalkulatzeko ez da bat ere erraza, finantzatzeko bide ugari baitago, kontzeptu desberdinengatik, baina soilik UGT, CCOO eta CENentzako zuzeneko aurrekontu-partidak azken hiru urteetan 55,3 milioi euro izan dira.

Zuzenean emandako partidei gehitu behar zaizkie patronalak eta sindikatu horiek eredu klientelista elikatzeke kudeatzen dituzten funtzioak: milioika euro gehiago azpikontratatu edota uzten zaizkie lan-munduan ezartzeko. Ardura eta kudeaketa publikoa izan beharko lukeen hainbat arlo -etxebizitza babestua, lan osasuna, immigrazioa, langileen prestakuntza iraunkorra- sindikatu horien tutelapean dago.

c) Elkarriketa sozialaren ereduak Gobernuari babesa ematen dio, eta Patronalari bake soziala

Bestalde, oker geundeke pentsatuz gero Gobernuak kontu honetan interesik ez duela. Aitzitik,

elkarrizketa sozialari esker sinatzen duten patronal eta sindikatuen aldetik babes publikoa jasotzen du, adostasunak bideratzen duen laguntzaile gisa agertzen baita; horrela, gainera, egiten dituen politiken ardura ere lausotzea lortzen du. Gobernuarentzako arnasa da. Diskurtsoa argia edo zeharkakoa dela ere, adostasunaren beharra aldarrikatuz, inplikatu guztiek agerian uzten dute gobernu honen jarraipena nahi dutela. Oso deigarriak dira, batetik, patronalak duen gobernuaren aldeko jarrera eta UGTren zein CCOOen kritika eta interpelazio eza.

Errealitate honen beste ondorio bat UGTren eta CCOOen konpromisoa da: ekintza sindikala indargabetzen dute, sindikalismo bare batekin patronalari bake sozial handiagoa bermatzeko. Horixe da Nafarroako negozioazio kolektiboari buruz 2012ko ekainaren 4an sinatu zen akordioaren mamia (Barcinak akordio hura 14,1 milioirekin “bedeinkatu” zuen, Rajoyk prestakuntza iraunkorrean ezarritako murrizketa konpentsatzearen). Akordio hartan soldata moderazioa ontzat ematen da, edo berriki, baita Nafarroako Gobernuak agertu duen asmoa ere, funtzio publikorako kontratu berriak areago prekarizatzea.

ONDORIOA

- Beraz, ELA ez dator bat elkarrizketa-mahai iraunkor hau eratzearekin, hainbat arrazoi medio: ez die langileen interesei mesederik egingo; ez da eraginkorra izango, eta bere xedea sinatzaileen onura besterik ez da.
- Hanka-sartze bat da, eta larriagoa izan daiteke UGTk eta CCOOek eskatu dutena betetzen bada: mahai horri erabakiak hartzeko ahalmena aitortzea. Egoera hori iritsiz gero, UGTk, CCOOek eta CENek Lan Sailaren tokia bera okupatuko lukete, eta gardentasunik ez duen eredu bat are ilunagoa bihurtuko litzateke.
- Kudeaketa publikoaren zatiak patronalaren eta UGT eta CCOO sindikatuen esku uzteko ez dago inolako aitzakiarik. Parlamentuko Enpleguaren aldeko Mahaian ELAk duela gutxi salatu zuen enplegu-politika, hainbesteko garrantzia duen gaia, azpikontratatu eta UGT, CCOO eta CENen esku utzi izana. ELAk eskatzen du, beste hainbat aldiz egin duen bezala, langileen prestakuntza iraunkorra ardura eta kudeaketa publikoaren pean egon dadila, lanbide heziketaren gisako beste irakaskuntza arlo batzuk diren bezala.
- ELAK zuzendu nahi die gaur hemen dauden alderdiei diru publikoaren utzikeria amaitzearen beharra, hots, amaiera jar diezaiotela Enplegu Planari. ELAK berriro ohartarazten du diru publiko kopuru izugarrien gaineko kontrol mekanismorik ez dagoela hainbat arlotan; halaber, partida horiek parlamentuaren kontrolpean jarri behar direla galdegin dugu.
- Horregatik, goitik behera aldatu behar da elkarrizketa sozialeko eta lan-harremanetako egungo eredu hau besteak beste demokratizatzeko. Aldaketa soziala eta politikoa hitz egiteaz ez du batere sinesgarritasunik indargabetzen ez bada egun den sistema klientelarra hau.
- Azkenik, ELAk uste du sindikalismoaren lehentasuna, areago erreforma eta murrizketa aroan gaudelarik, erantzun kolektiboa indartzea izan behar dela; honetarako modu bakarra dago, baliabide eta ahalegin guztiak helburu batera bideratzea: langileak lantoki bakoitzean antolatzeko helburua. Beraz, ez dago esaterik hemen bazterketa sindikalik ematen denik, argi baitago huts egin duen eta eraginkortasunik ez duen eredu honetan ez dugula egon nahi. Benetako elkarrizketa soziala indar-erlazioarekin lotuta dago. Horregatik, gure kezka da indar-erlazio hori hobetzea eta politika alternatiboen erreferentzia gizartean hedatzea.
- ELAk eskatzen du amai dadila elkarrizketa sozialaren antzezpena, eta politika publikoak izan daitezela enplegua sortzeko, aberastasuna hobeto banatzeko eta babes soziala hobetzeko; hain zuzen, elkarrizketa sozialeko mahai iraunkor horretan egingo ez direnak.

Iruñea 2013ko Azaroaren 27an.